




Plazido Muxika plaza estaltzeko ideia-lehiaketa

Adituek proposamenak aurkezteko aukera izango dute, azaroaren 21a bitarte. Azken erabakia urnietarren bozketatik irtengo da / 6

Keinu dendako
Ana Jandula dendariari
elkarrizketa,
Eguberrietako
kanpainaren atarian / 5

Euskal kutsuko
Gau Beltza ikusgarria
antolatu zuten
Urnietan, joan zen
urriaren 31n / 11

Imanol Gonzalez
Edergaiko arduradunari
elkarrizketa, tokiko
merkataritzaz
hausnarketa egiteko / 8

Kultur hitzordu
ugari Andoainen
eta Urnietan,
hilabete osoan
zehar / 14-15

Martin Ugalderen mendeurrena

Andoaingo Udalaren eta Martin Ugalde Kultur Parkearen agerraldia / 2-3



Hiltzaileak

Martin Ugalderen IPUIN LIBURUA

PODCASTA



ADI
laster
entzungai



ANDOAINGO UDALA

AIURRI





Martin Ugalde Orradre, 1996an Hondarribiko etxean hartutako irudian. AIURRI

Mende bete beharko dugu maitasun hau esplikatzen

Azaroaren 11 hurbiltzen ari da, Martin Ugalde Orradre Andoain jaio zen eguna. Aurtengoan, gainera, jaiotzaren mendeurrena ospatzen da. Andoain herriak lotura berezia izan zuen idazlearekin, bizirik zegoela. Orain ere ekitaldi-sortarekin gogoan hartuko dute

Erredakzioa ANDOAIN

Mende bete beharko dugu maitasun hau esplikatzen. Izan ere, Martin Ugalde Orradre bizi zela, andoaindarren aitortza zabala jaso zuen. Herriko Seme Kuttun izendatu zuten, eta haren izena ipini diote herriari izaera berezia ematen dion Kultur Parkeari. Ipuin lehiaketak ere Martin Ugalderen izena darama. Laster, Basteron kazetaritzaren historian ikur diren bi pertsona hartuko dituzte gogoan: Rikardo Arregi eta Martin Ugalde.

"Mende bete beharko dugu maitasun hau esplikatzen" esaldea Jose Luis Otamendi idazlearena da, *Jokin Uraini hitzak* izeneko poesiatik hartuta. Martin Ugalderi eskaintzeko baliagarria izan daiteke ere, poesia bereko hainbat pasarteri erreparatuz gero: "Ahots bat lur hau

urrundik laztantzen, haizea ate-leihoak zabaltzen; geroa edertzeko lana dugu saminak mundua akitu baino lehen".

1961ean *Hiltzaileak* izan zen atzerrian Ugaldek euskaraz idatzi zuen lehen liburua. Ipuin-liburua zen, 1936ko Gerraren inguruan eskualdeko hainbat pasadizu oinarritzat harturik. Ahots bat ari zen sorterrria urrundik laztantzen. Haize berri hark literatur modernoaren ate-leihoak zabaldu zituen. Eta Martin Ugalde bertan zela, euskarazko lehen egunkari nazionala martxan jartzeko lan itzela egin zuen. Iragan latza bizi ondoren, geroa edertzeko lana hartu zuen. Saminak mundua, euskara akitu baino lehen. Asko zor dio euskarak Martin Ugalderi. Eta andoaindarrek eskertu diote langintza hori. Lehen eta orain.

Mendeurrena gogoan hartzeko bost ekitaldi, azaroan



ERAKUSKETA
BASTERO KULTURGUNEA

**Azaroaren 5ean hasita,
Basteroko erakusketa gelan**

Joanmari Larrartek adierazi zuenez, erakusketaren helburua "Andoaingo kazetari zein idazlearen bizitza eta lan oparoa ezagutzera ematea da". Horretarako, lau ataletan banatuta, bere ibilbidea eta obra erakutsiko dira: irudi ezberdinen proiektzioa ikusgai egongo da, Ugaldek idatzitako hainbat liburu eta beste hainbeste elementurekin batera. Erakusketa dagoeneko Hondarribian, Donostiako Koldo Mitxelenan edo Bilboko EHUKo egoitzan izan da. Andoainen itxiko du urte osoan egin duen ibilbidea.

Haren ibilbideari omenaldia egiteko, erakusketa zabal batean jasoko da idazle, kazetari eta euskaltzale ezagunaren lana. Azaroaren 5ean, ostirala, inauguratuko da eta abenduaren 4ra arte egongo da ikusgai, Bastero Kulturguneko erakusketa aretoan ohiko ordutegian.

Ordutegia

- Astelehen-ostirala: 18:30-20:00.
- Larunbata: 10:30-13:30 eta 18:00-20:30.
- Igandea, asteartea: Itxita.



IRAKURKETA PUBLIKOA
MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA

**Azaroaren 11n, Martin
Ugalde Kultur Parkean**

Azaroaren 11 data esanguratsua da, orduan beteko baita Martin Ugalderen mendeurrena. Larrartek prentsaurrekoan aurreratu zuenez, irakurketa publikoan parte hartuko dute jaiotzaren ehun urteak ospatzeko elkarlanean jardun duten erakunde ezberdinek, tartean, Andoaingo Udal ordezkariak eta Andoaingo herriak, bai eta euskalgintzaren ordezkariak zabal batek ere. Hala, "Itzulera baten historia" (Elkar, 1990) izeneko liburua irakurriko dute, goizeko 11:00etatik aurrera etenik gabe.

Pantaila bidez ikusteko aukera izango da

Irakurraldi publikoa zuzenean jarraitzeko, bi aukera izango dituzte andoaindarrek. Pantaila bidez, herriko bi puntutan irakurketa eta irakurleak zuzenean entzuteko nahiz ikusteko aukera egongo da. Batetik, udaletxeko arkupean edo atarian, eta, bestetik, Bastero Kulturguneko plaza txoan. Bi gune horietan aulkiak ipiniko dituzte, zuzeneko emisioa patsadaz jarraitu ahal izateko.



IPUIN LEHIAKETA
BASTERO KULTURGUNEA

**Azaroaren 11n,
Bastero Kulturgunean**

Martin Ugalde idazlearen mendeurrenaren bat egingo du haren izena daraman ipuin lehiaketaren XXV. edizioarekin. Hitzordu seinalatua, urte berezian. Andoaingo Udalak 1996az geroztik antolatzen duen ipuin sariketa 10-17 urteko gazteei bideratuta dago. Aurtengoan, gainera, Beterri-Aiztondo-Buruntza eremuko ikasleengan arreta berezia ipini dute, haiei guztiei zabalik baitago lehiaketa. Sari-banaketa ekitaldia azaroaren 11n egingo dute, iluntzeko 19:00etan hasita, Basteroko auditorioan.

Txitxu Ruiz zinegotziak aurreratu zuenez, "lehiaketa dagoeneko erreferente bilakatu da". Eta baieztapen hori indartzeko datu zehatza eskaini zuen. Aurtengoan, denera, 127 lan aurkeztu zituzte lehiaketara. Eta zinegotziaren ahotan, "guztiak oso maila altukoak". A kategorian (10-11 urte) 34 lan aurkeztu zituzte, B kategorian (12-13 urte) 36, C kategorian (14-15 urte) 25, eta D kategorian (16-17 urte) 32 lan. Urteurrenoko edizioan irabaztea berezia izango da parte-hartzaileentzat.



LIBURUAREN AURKEZPENA
BASTERO KULTURGUNEA

**Azaroaren 15ean,
Bastero Kulturgunean**

Anjel Lertxundik 1997an Martin Ugalderi buruz idatzirik glosak berrargitaratzeari ekin dio Andoaingo Udalak. Lertxundik berak heldu dio lan horri, eta 1997. urtetik aurrerako Martinen bizialdiarekin osatu du. Emaizta "Martin Ugalde mendeurrena. Herriminarek prosak" izeneko liburua da.

Azaroaren 15ean, 19:00etan hasita, liburuaren aurkezpenean egingo dute. Eta bertan izango da Anjel Lertxundi. Udaleko Euskara sailak ekitaldira bertaratzeko deia luzatu du: "Anjelen aurkezpenearekin gozatzeko".

Euskaldunon Egunkarian Mikel Aldalurrek lehen edizio hartako deskribapena egin zuen: "Hiztegi moduan, A-tik Z-rainoko bidea eginez antolatu zituen Lertxundik glosa hauek eta, bidean, irakurleak zerbait gehiago ikasteko aukera du Ugalderi buruz. Lehen esalditik hasita –*Denon askatasunak egiten gaitu libre*– irakurlea harritzea, liluratzea eta Ugalderekiko miresmena areagotzea lortzen du Lertxundik".

2021eko liburua 1997koaren edizio eguneratua da.



DOKUMENTALA
BASTERO KULTURGUNEA

**Azaroaren 17an,
Bastero Kulturgunean**

"Jainkoak ez dit barkatzen" filma ikusteko aukera izango da, azaroaren 17an. Martin Ugalde eta Lezo Urreiztieta aurrez aurre ageri dira ikus-entzunezkoan, eta berez bigarrenaren protagonista nagusia. Baina abiapuntua Martin Ugalde berarekin egindako elkarrizketa da, eta haren irudiak ikusteko aukera izango da.

Edukiari dagokionez, Lezo Urreiztieta zenaren bizitza aurkeztzen da. Martinez zuzendariak 2018an egin zuen filma eta trailerreko aurkezpenean honako hau adierazten da: "Lezo Urreiztieta milaka arma erosi zituen euskal antifaxistentzat, ehunka pertsonari bizitza salbatu zien, Franco akabatzen saiatu zen... Lezo Urreiztieta historia harrigarria, bere ahotik".

Filmak ezinbesteko ditu Martin Ugaldek egindako elkarrizketaren audioak, zintak, kontakizunaren ardatza protagonistaren ahotza baita. Dokumentala 19:00etan eskainiko dute Bastero Kulturgunean, eta ondoren Josu Martinez zuzendariarekin solasaldi batean parte hartzeko aukera izango dute ikusleek.

Jaiotzaren mendeurrenoko ekitaldien aurkezpene

Andoaingo Udaleko eta Martin Ugalde Kultur Parkeko ordezkariak ekitaldi-sorta zabala iragarri zuten

Erredakzioa ANDOAIN

"Erakundeen arteko lankidetzaren estu baten emaitza" dela adierazi zuten astearteko agerraldian. Izan ere, Udalak bidelagun izango ditu Martin Ugalde Kultur Parkea, Eusko Jaurlaritza, Gi-

puzkoako Foru Aldundia, Hondarribiako Udalak, Elkar fundazioa, Berria taldea, Jakin, Euskal Idazleen Elkarte eta Martin Ugalderen familia bera.

1997ko azaroaren 9an Andoaingo udal ordezkariak aho batez

Herriko Seme Kuttun izendatu zutela gogora ekarri zuen Huitzi Euskara saileko zinegotziak: "Euskal kulturaren ordezkari eta herriko eragile ugari lekuko zirela. Andoaingo herriarentzat eta Udalarentzat, baita euskalgintzarentzat, Ugalde erreferente garrantzitsua izan da eta izango da. Kazetaria, idazlea, euskaltzain urgazlea, politikaria... Arrasto oparoa utzi zuen gizona, euskaldun nekaezina. Andoaingo herriarentzat erreferente nabarmena".



Joanmari Larrarte Martin Ugalde Kultur Parkeko ordezkaria, Alexander Huitzi zinegotzia eta Txitxu Ruiz zinegotzia asteartean Basteron egin zuten agerraldian. AIURRI

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

ALLURRALDE IGERILEKUKO GURASO TALDE BAT ANDOAIN

Beste behin ere, Andoaingo haurrak diskriminatzen ari gara

Osasun-alarma bertan behera uztearekin batera, urriaren 8an “murrizketen amaieraren hasiera” iragarri zuten Allurralde kiroldegiaren webgunean. Lehen-gora itzultzen ari gara, baina beste behin ere udal-zerbitzuetatik gizartearen sektore zehatza bigarren mailako hiritar gisa tratatzen ari dira. Iaz, garai honetan, haur-parkeekin gertatu zen bidegabekeria errepikatzen ari dira Andoaingo kiroldegian. Erreserbak eskatzeko hitzordua kendu egin dute, igerilekuaren ohiko erabilera berreskuratu da, sauna eta solariuma lehengora itzuli dira, areto barruko leihoe-tatik igerilekura begira egon gaitezke, baina oharraren azken lerroa iritsi eta hortxe topatu dugu hasarrerazi gaituen araua. Horrela dio: “Haurrentzako igeriketa ikastaroak: orain dugun protokoloarekin jarraituko dugu”.



Allurralde kiroldegiko igerilekua. AIURRI

Eta zer esan nahi du horrek? Haurrak begirale batek jasoko dituela kiroldegiaren kanpoaldean, erantziko dituela, igerile-

kuan sartuko dituela eta 2015-2017 urtean jaiotakoak dutxatzeko aukerarik gabe etxera bidaliko dituztela.

Ezin ditugu gure haurrak kiroldegian dutxatu, gainerako adin-tarte guztietan aukera hori eskaintzen ari direnean. Zein da erabaki hori hartzeko arrazoia? Eta zein da hautu arbitrario hori sustengatzen duen oinarri tekniko edo juridikoa? Zer dela eta haur txikiekiko diskriminazio hori? Haurrak xaboitu eta dutxatu nahi ditugun gurasook etxera eraman behar ditugu dutxatzera gainerako erabiltzaile guztiek Allurralden bertan dutxatzeko aukera dutenean. Zergatik?

Bi aldiz adierazi nahi dugu haserre. Lehenik, inongo azalpenik ez zaigulako eman. Eta, bigarrenik, neurri hori erabat diskriminatzailea dela iruditzen zaigulako.

Bada beste moldaketa nabarmen bat. Eskaintzak, hasiera batean, ikasturtearen hasiera

arratsaldeko 17:00tarako eta 18:00tarako jasotzen zuten, eta bat-batean hasiera aurreratu egin da 16:45etik eta 17:45era. Gurasoekin hitzartu gabe gauzatu da hori. Eskolatik irteten diren haur txikientzat zailtasun erantsia da, eskolatik irteten eta kiroldegira garaiz iristeko denbora tarte nabarmen murrizten delako.

Gertu ditugu haurrak diskriminatzen ez dituzten adibideak, Lasarte-Orian eta Tolosan.

Hori dela eta, gure eskaera honako hau da: eskubide guztiak, erabiltzaile guztientzat. Gurasook gure haurrak kiroldegian dutxatu eta jantzeko aukera izatea eskatzen dugu, gainerako erabiltzaileek bezala. Eta gure laguntzarekin, beharrezkoa izanez gero. Amaitzeko, argi utzi nahiko genuke ulergarria zaigula eraikin publiko baten erabilera kudeatzea ez dela lan erraza, baina, bizi izandakoak eta gero, uste dugu haurrei ere normaltasun berriaz gozatzeko aukera eskaini behar zaiela. Dagoeneko helduak egiten ari garena.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA


www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez ebeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuku eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Truxuelo.**Kudeaketa, harpidetzak:**

Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietan).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikiak: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.**ISSN:** 1698-4870.**Tirada:** 4.000 ale.**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.**EKOIZLEA:****ALIATUAK:****BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:**

ANDOAINGO UDALA



Urrietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza
Berdintasunerako
Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:**BABESLEAK:**

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.


andoaINDARRA
euskaraz

"Jantzia bertan erosiz gero, bordatua doan eskaintzen dugu"

ANA JANDULA KEINU DENDA

Eguberriak ate-joka daude, eta ohitura zaharrak berreskuratzeko aukera izango dugula dirudi. Euskal jantzien aukera zabala dute Andoaingo Kale Nagusian

Erredakzioa ANDOAIN
Keinuko erakusleihoak Gabonetara garamatza, euskal jantziak eskaintzen hasi zaretelako.

Ekainean pandemiaren gogorrena atzean geratuko zela ikusten hasi ginen. Eskaera handia egin genuen orduan, eta apustu egitea erabaki genuen. Gehien-gehiena iritsi zaigu eta dagoeneko hasi gara jantziak saltzen. Eskaintza bereziak daude, tartean. Garaiz ibiltzen denak abantaila izango du. **Garrantzi handikoa da Eguberria, ezta?**

Lan gehiena ospakizunen bueltan egiten dugu: Gabonak, udako ospakizunak... Ezkontzak eta bestelako ospakizunak martxa onean hasi direnetik txapelak eta zapiak bordatzen hasi gara. Ezkontzako gonbidatuentzat txapel txikiak eskaintzen hasi gara, bordatu txiki batekin. Ideia originala da.



Ana Jandula, Keinu dendako atarian. AIURRI

Tradiziozko jantzietan aukera zabala dago. Zein da egungo joera?

Aukera zabala dago, bai. Urteak dira nesken jantzietan koloreak sartu zirenetik, eta mutilen jantzietan berrikuntzak sartzen ahalegintzen gara. Gizonezkoei aldatzea gehiago kostatzen zaie, gehienetan bluxa beltza jartzen baitute. Hasi dira, halere, koloreak eta bestelako elementu berriak sartzen. Koloredun zapiak, granate koloreko jantzia...

Bordatuak pertsonalizatzen dituzue.

Hori da gure aukera, eta berezitasuna. Jantzia bertan erosiz gero, bordatua doan eskaintzen dugu. Nesketan bordatua amantalean, gonan edo zapien jartzen dugu. Eta mutilen gerrikoan, txapelan... Keinuren oparia da.

Adin guztiei begirako eskaintza duzue.

Halaxe da, bai. 0 tailatik hasi eta emakumezko eta gizonezko helduetaraino. Osagarri guztiekin, gainera. Ez dugu ezeren falta. Albarkak, galtzerdiak... Bertan aurki daiteke dena.

Hobe garaiz ibiltzea, ezta?

Bai, erosleak aukeran modelo ezberdinak probatzeko aukera duelako. Espero dut Gabonetan aurreko urtean saldu ez zena saltzea eta egoera honetatik ondo ateratzea.

DATORRENA

Ateak zabaltu ditu Andoaingo Mizpiradi sagardotegiak



Mizpiradi. AIURRI

"Gogo handiz aste honetan irekiko ditugu gure ateak. Animatu eta egin erreserba! Asteazkenetik larunbatera afariak: 20:00-00:00. Ostiraletik igandera bazkariak: 13:00-18:00. Telefono zenbakia: 943 59 39 54". Mezu hori zabaltu zuten astearen hasieran Andoaingo Leizotz auzoko sagardogileek. Jon Mikel Arruabarrena eta bere lantaldea, beraz, prest dago sasoi berriari ekiteko.

EFEMERIDEA

Ostalaritza hilabetez ixteko agindua

Pandemiaren bigarren olatuaren ondorioz intzidentzia-tasa metatua oso handia izaten ari zela eta, Urkullu lehendakariak ostalaritzaren erabateko itxiera agindu zuen. 2020ko azaroaren 7an sartu zen indarrean, hilabete osoko iraupenarekin. Beterri-Buruntzako garapen agentziaren datuen arabera, 2020ko martxoan hasita, eskualdeko ostalaritza sektoreko 1.332 lagun egon ziren ERTEan. Eta merkataritza sektoretik 1.124 pertsona gehiago.

GORA ETA BEHERA



Omenaldia Aita Larramendi ikastolan

Lourdes Jauregi Loinaz idazkariak erretiroa hartu berri du, 44 urtez ikastolan lanean jardun ostean. 1963. urtean ikastolak izandako lehenengo ikasleen artean dago bere izena. Bizitza osoa, beraz, ikastolari lotuta. Lankideek omenaldi sentitua eskaini zioten asteartean, ikastolako frontoian antolatu zuten omenaldian.



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

SAREAN

Elikadura osasuntsuaren aldeko mezua

"Azkenean! Albiste bikaina! Horrelako albisteek eguna alaitzen naute", adierazi zuten Andoaingo Zumea kalean bulegoa duten Nutrieskolatik. Espainiako Gobernuaren neurri berriak aldeko eta aurkako jarrerak eragin ditu.



INSTAGRAM



Aiurrik landutako foto-muntaia da. Ideia-lehiaketan parte-hartzaileek antzeko proposamenak aurkeztu beharko dituzte, estalkia txertatzeko baldintza teknikoak eta ekonomikoak zehaztuta. AIURRI

Plazido Muxika plaza estaltzeko ideia-lehiaketa abiatu du Udalak

Urnietako Udalak 2020an herriko zein parke edo plaza estali hautatzeko parte-hartze prozesua martxan jarri zuen, eta aukeren artean bozkatuena Plazido Muxika plaza izan zen. Orain nola estali behar den erabakitzeko ideia-lehiaketa deitu dute

Erredakzioa URNIETA

Azaroaren 21a bitarte, langintza horretan aditu direnek ideiak proposatzeko aukera izango dute. Plaza estaltzeko jarriko duten estalkiaren hedadura 630 metro karratu ingurukoa izango da. Hasiera batean aurreikusitakoa baino gehiago da, plazaren geometria kontuan hartuta Udalak proiekturako aurrekontua handitzea erabaki baitu.

Azaroaren hirugarren asteburua izango da ideiak aurkezteko azken eguna, beraz. Ekimenean parte hartzen dutenek Udalaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dituzte proposamenak. Udalaren webgunean atxikitako dokumentuetan zehazten dira, besteak beste, lanaren deskribapena, baldintza teknikoak, kontratuaren aurrekontua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Proposamenak jasotzeko epea amaituta, Udalak epaimahaia eratuko du, hiru teknikarirekin; tartean izango da udal arkitektoa. Horiek hautatuko dituzte jasotako proposamen guztien artean egokienak iruditzen zaizkien hirurak. Zein irizpide hartuko dituzten kontutan? Nagusiki, honako hauek: kalitate teknikoa, kanpoko itxura, inguruna egokitzea, materialak eta prezioa. Prozesu parte-hartzaileari amaiera emateko, urnietarren txanda iritsiko da berriro ere, hiru aukera horien artean gogokoena erabaki ahal izango baitute.

lazko maiatzean abiatutako prozesua

Udaleko teknikariek zazpi aukera planteatu zituzten, eta boto gehien jaso zuen proposamena Plazido Muxikarena izan zen.



Parkea eraberritzeko lanetan ari dira. UDALA

Txoritagaingo parkea estaltzeko lanetan ari dira

Aurreko urteetako parte-hartze prozesuetan herritarrek egindako eskaeretako bati bidea eman dio Udalak

Erredakzioa URNIETA

Dagoeneko hasi dira lanak, eta etorkizun hurbileko parkea gaur egungo joera pedagogikoetara egokituko da. Txoritagaingo parkea zurezkoa izango da, haurren sozializazioarako nahiz trebetasunak indartzeko aproposa.

Udalak zabalduetako oharren arabera, "jolas berriek estimulazio sentsoriala, gaitasun motorren garapena eta haurren interakzio soziala eta fisikoa sustatuko dituzte". Zoru elastikoa ipiniko dute, eta baita egurrezko eserlekuak ere.

"Lulu" ipuin liburuaren aurkezpenaren bideo-sorta

Aiurri.eus webgunean ikusgai dago ikuskizuna, bideo-sorta zabalean antolatuta

Erredakzioa URNIETA

Aiurri.eus webgunearen bidez, "Lurdes Iriondo Lulu" ipuin-liburuaren aurkezpena ikusteko aukera dago. Egon zirenentzat eta aukerarik izan ez zutenentzat, kantuez eta ipuinez gozatzeko aukera dute. Aiurri.eus webgunean sartu eta bideoak atalean zortzi bideo ikusteko aukera dago. Besteak beste, "Seaska txikia" ipuina, "Gaua", "Errota zahar maiter" edota "Ez gaude konforme" abestiak... Ikuskizun korala antolatu zuen Udalak, eta bideo hauen bitartez ekitaldiko protagonista guztiak ikusteko aukera dago.



Ikasle gazteak zinema aretora sartu ziren, aurreko astean. SAROBE

"Euskara zinema aretoetara", normaltasun berriaren ikur

Bi ikastetxeetako LH 1, 2 eta 3 mailako ikasleek zinemaz gozatu ahal izan zuten, aurreko astean

Erredakzioa URNIETA

"Pandemiaren ondoren, Egape ikastolako eta Magale ikastetxe-ko ikasleak gurera etorri dira berriro, zineaz euskaraz gozatzera", normaltasun egoera irudikatzen zuen mezu hori zabaldu zuten Sarobetik, aurreko

asteen. Normaltasun berriari ari da pixkanaka hezkuntza eta gizarte bizitza lehengora itzultzen. LHko ikasleek pantaila handian "Nur eta Herensugea" ikusi ahal izan zuten. Egitasmo honekin euskara sustatu nahi da, ikus-entzunezkoen alorrean.

ANTZERKIA Bete ingoiau. Zutani Teatroa
azaroak 12, **OSTIRALA**, 22:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA Eneritz Furiak eta Maite Larburu
azaroak 13, **LARUNBATA**, 22:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

BINAKAKO BAKARRIZKETA Luze edo Motz
azaroak 14, **IGANDEA**, 19:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

HITZALDIA Txerra Rodriguez. 30 urte mihigintzan
azaroak 15, **ASTELEHENA**, 19:00 Suteqi **DOAN**

KONTZERTUA Ruper Ordorika
azaroak 19, **OSTIRALA**, 22:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

DANTZA Tio Teronen Semeak, Testamentua
azaroak 20, **LARUNBATA**, 19:00 Mikel Laboa plazan **DOAN**
(Eguraldi txarra bada frontoian)

KONTZERTUA Don Inorrez
azaroak 21, **IGANDEA**, 19:00 Suteqi **SARRERAREKIN**

Sarrerak: aldeztu aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaualko egoitzan

NOAUA/KO KULTURALDIA 2021

USURBIL AZAROA

Erredakzioa ANDOAIN

Zure dendak ibilbide luzea du. Nola joan da garatzen zure negozioa, urte hauetan?

Hasieratik hona, ia 25 urte dira, aldaketa handiak egin ditut. Lokal batean hasi nintzen, diru gutxirekin eta negozioa ondo samar abiatu zen. Lokala utzi eta Goikoplazara hurbildu nintzen. Hedadura aldetik handiagoa zen, negozio aurrikuspenak gauzagarriak zirelako.

Hogei urte egingo ditut hemen, eta ibilbide horretan 2007ko krisi ekonomikoa latza izan zen. Ia-ia ixtera iritsi nintzen zorpetze maila handia nuelako. Negozioa beherantz ari zen, baina eustea erabaki nuen, eta berriro ere aurrera egitea lortu nuen. Hobekuntza bat nabaritu dut baina oso mantso ari da hobekuntza antzematen. Ez gara lehengora iritsiko, baina bagoaz pixkanaka. Garapena positiboa da, hemen jarraitzen dudalako. **Zein da orain zure espezialitatea?** Enmarkazioa, brikolajea eta dekorazioa. Horiexek dira nire negozio-ildoak.

Gabonak dira beharbada orain duzun erronkarik handiena?

Zela esango nuke, iraganeko aditza erabilita. Garai batean, Eguberriak iristean, salmenta handia izaten zen. Hilabete horretan aurreko eta ondorengo hilabete txarrak estaltzeko aukera ematen zidan. Lehen salmenta handia zen, eta orain nabarmen lasaitu da salmenta. Askoz gutxiago saltzen dugu, baina ohikoa baino salmenta handiagoa da. Dagoeneko bukatu da iraganeko pagotxa Gabonekin.

Erosketa bonoez baliatu al zara? Zer iruditzen zaizu ekimen hori?

Udalak Salkinekin batera mar txan jarri duen ekimena oso ona da. Horrek merkataritza laguntzea ekartzen duelako nahiz eta merkataritzak ez du zertan laguntzarik jaso. Herritarren ekimena izan behar da merkataritza sustatzea. Nik ez dut inork ni laguntzea nahi, tokiko merkatariek eskaini dezakeen zerbitzua askoz gertukoagoa dela barneratu behar du erosleak. Saltzailea ezagutzen duzu, proba egiteko aukera uzten dizu... Gertutasun hori merkatariek eskaintzen duten hoztasunaren gainetik dago.

Urte hauetan zein aldaketa nabaritzen dituzu tokiko merkataritzan?

Pandemia eta gero, tokikoa indartzen hasi zela ikusten ari

"Herria egin ezazue, horixe esango nieke herrikideei"

IMANOL GONZALEZ EDERGAI DENDA

Enmarkazioan, brikolajea zein dekorazioan eskarmentu handia du. Azken krisi ekonomikoa eta pandemia igarota, hobekuntza ematen ari dela uste du



Imanol Gonzalez, dendan duen erakusleihoan. AIURRI

nintzen baina orain ez aurrera, ez atzera gaudela iruditzen zait. Salmenta egon badago, baina oso geldo doa.

Internet, hedadura handiko negozioak... Zein da zuen mehatxu handiena?

Baditu gauza positiboak, baina nire negozioarentzat negatiboa da. Neronek denda izan nuen internet sarean, baina gure on line salmentak ez du ia ezertarako balio. Enpresa txikiak on line bidezko salmenta ahalbidetuz gero bizirauteko aukera duela dioenak gezurra dio. Enpresa handiek askoz aukera gehiago eta hobeak dituzte internet bidezko salmentan kokapen hobeak lortzeko garaian. Enpresa handien aurka lehiatzea ezinezkoa da, baina dendari txikiok batu beharko genuke presio gehiago egin ahal izateko. **Zergatik erosi behar da Andoainen, tokian tokiko merkataritzan?**

Logikoa da. Erosle modura gertuko norbaiti egiten diot erosketa, atsegina zait saltzailea eta beharrezkoa bada, produktua utziko dit. Gertutasuna eskaintzen dit saltzaileak. Konfiantza eta tratua, horixe da gakoa. Merkatalgune handi batean ez zara ezer, ez zara inor.

Etorkizun hurbilean zein da ikusten duzun egoera edo panorama?

Zaila da erantzuna ematea, etorkizunaz ari garelako. Zaila izango da merkatarientzat, eta, oro har, ez da lan makala izango. Merkataritza zailduz joango da, eta denda gehiago itxiko direla ikusiko dugu. Herrikideek tokiko merkatariekin harremana sustatu beharko dute, zeren eta bestela merkataritza hustu egingo baita. Andoainen dagoeneko ikusten ari gara hori.

Zer esango zenieke herrikideei?

Herria egin ezazue, horixe esango nieke herrikideei. Geroz eta gehiago inbertitzen badugu herrian, inbertsio horrek gugan eragingo du. Auazoak hobetuko dira, inguru osoa hobetzen da. Salmenta atzerrira bideratuz gero, diruak ihes egiten du. Herria egin nahi badugu, nork bere herrian egin beharko du inbertsioa.

"MERKATARITZA ZAILDUZ JOANGO DA, ETA DENDA GEHIAGO ITXIKO DIRELA IKUSIKO DUGU"

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Mahaiaren bueltan bilduko dira Izaskun Solagaistua eta Pepa Bojo psikologoak, banaketa-prozesuetan ematen den indarkeriari aitortza egin asmoz. Azaroaren 12an izango da hitzordua, Bastero Kulturgunean, arratsaldeko 18:30ean. Afera mahaigaineratzea eta hortaz hausnartzea dute helburu, indarkeria hori pairatu duten zenbait emakumeren testigantzetatik abiatuta. **Banaketa-prozesuetan ematen diren biolentziaz mintzo garenean, zein indarkeriez ari gara?**

Askotariko biolentziak eman daitezke emakumeen kontra banaketa-prozesuetan, baina, funtsean, gizonak emakumearenganako hartzen duen jarrera erasokorrezt mintzo gara (manipulazioak, txantaiak, esaterako), izan zuzeneko edo ez hain zuzeneko indarkeriaz, izan begi bistakoaz edo hain erraz identifikatzen ez denaz, hain justu.

Beraz, makina bat indarkeria erreproduzitzen diren egoerak izan al daitezke banaketa-prozesuak?

Hori da. Zenbaitetan, emakumea ahul zein nahasia sentitzeko jarrerak izaten dituzte gizonak. Adibidez, askotan erabili ohi dira seme-alabak bikotekideari min emateko: prozedurak luza-tu, hitzartutakoak hautsi... Hori ere biolentzia da, eta sufrimendua eragiten dio emakumeari. Horretaz guztiaz ere hitz egin nahi dugu hitzorduan, batzuetan ez delako indarkeriatzat jotzen: emakumea ondoezik aurkitzen da, galduta, ez daki argi zer ari den gertatzen, errudun sentitzen da. Segurtasun eza horrek badu jatorria eta askotan ez da identifikatzen, sotila delako. Emakumea txiki bihurtzen du, egoera ez da argia eta horrek sufrimendu handia dakar. Hortaz, isilpeko indarkeriei izena jarri nahi diegu, jatorria identifikatu eta ikus-tarazi. Askotan, emakumeek egoera bortitzak bizitzen dituzte oso ondo jakin gabe zer ari den gertatzen.

Dolua igaro behar al da banaketa-prozesuetan?

Bai, finean, bizi-egoera aldatu egiten delako banaketa baten ostean; horrek dolua dakar. Halere, ez da gauza bera bi kideen arteko errespetuzko erabakia baldin bada banaketa, edo tartean jarrera desagokiak izaten badi-ra, indarkeriak kalte handiak eragiten ditu-eta. Indarkeriazko

"Emakume asko daude indarkeria egoeran"

IZASKUN SOLAGAISTUA PSIKOLOGOA

Askotariko hitzorduak izango dira azaroan Andoainen, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna eguna medio



Izaskun Solagaistua, argazkian. Pepa Bojorekin batera ariko da hizlari.

Taupadarekin harremanetan jartzeko: taupada@sormena.biz e-posta, eta telefono zenbakia 667 60 82 02. TAUPADA

banaketa ez da berdinen arteko konfrontazioa, kide batek bestea zapaltzen duelako. Nahasmendua eragiten dio emakumeari egoerak, kaosa.

"Emazte txar" zein "ama txar" us-teekin egiten al du topo emakumeak horrelako egoeretan?

"INDARKERIA-EGOERAK ZAILAK DIRA SEME-ALABENTZAT, BANAKETA-PROZESUETAN"

Bai, horrelako sentimenduak agertzen dira: ama txarra direla uste dute askok, alegia, gauzak ondo egiten ari ez direla sentitzeko joera dago maiz. Ondorioz, seme-alabak galduko dituztela uste dute, gizonen manipulaziotik abiatuta.

Seme-alabak baldin badaude, horriexek dira banaketaren lekuko gertukoetak. Non gelditzen dira horrelako egoeretan?

Indarkeria egoerak oso zailak dira seme-alabentzat, konturatzen direlako gauzak ez daudela ondo, eta ez dakite argi egoera horren aurrean zein jarrera hartu. Txi-

kia zarenean, gainera, ez daukazu gaitasunik jakiteko zer ari den gertatzen eta nola jokatu behar duzun horren aurrean. Ahal dutena egiten dute seme-alabek, duten gaitasunaren arabera. Sufrimendua, ordea, hor dago.

GAIARI BURUZKO HITZALDIA EMANGO DUTE BASTERON, DATORREN AZAROAREN 12AN

Emakumearengan erortzen al da zaintzaren pisua?

Oro har, gaur egun, emakumeen sorbaldetan jartzen da erantzukizun hori gure jendartearen. Errespetutik abiatutako banaketetan, bi gurasoek hartu ohi dute ardura. Alabaina, emakumeari jazartzen zaion gizonak ez du erantzukizun hori bere sentitzen, ez dago zaintzarik. Aitzitik, kalte egiten du, bere jarrerekin emakumeari nahiz seme-alabei min ematen dielako. Manipulazio emozionala eta xantaia askotan erabiltzen dira indarkeriazko banaketa-prozesuetan: segurtasun eza eragitea eta beldurra sartzea, besteak beste, indarkeria dira.

Hain agerikoa ez bada ere, zauri sakonak uzten al ditu indarkeria psikologikoak?

Jakina. Gainera, ez da erraza indarkeria egoera hori identifikatzea, eta are zailagoa bihurtzen du arazoa, ez baita argitasunez ikusten zer ari den gertatzen.

Hala, azaroaren 12ko hitzorduan banaketetan jazotako biolentziari leku ematea duzue xede.

Hori da helburua, ikustaraztea. Askotan emakumeek ez dakite nola azaldu gertatzen ari zaiena. Gainera, zaila izaten da frogatzea jasaten ari direna, alegia, sentitzen dute beren salaketa ez dela auzitaratuko. Inpotentzia handia sentitzen dute.

Horrenbestez, lagungarria al da esperientziak trukatzeko espazioak sortzea arazoari aurre egiteko?

Positiboa da indarkeriez hitz egitea, baina ez soilik horrelako prozesua bizitzen ari diren emakumeentzat; lagungarria da, oro har, jendartearentzat, arazoa agerian uzteko. Gutxitan hitz egiten bada ere, emakume asko daude indarkeria-egoeran. Normaltzat jotzen dira askotan jarrera zapaltzaileak, banaketa-prozesuak zailak direlakoan. Baina ez, ez gara banaketa-prozesuaren zailtasunari buruz bakarrik ari, prozesu horretan ematen diren indarkeriez baizik. Hari horri tiraka, Taupada zerbitzua dago Andoainen bertan, zapalkuntza pairatzen duten emakumei laguntza psikologikoa bermatzeko, eta zapalkuntzei aurre egiteko. Bagoaz, poliki-poliki, aurrerapausoak ematen. Orain urte batzuk, esaterako, askoz gutxiago hitz egiten zen indarkeria matxistaz. Halere, asko dago egiteko oraindik.



Maite Sagaseta, Olagaingo Musika Eskolan, Urki Dantza Taldearen egoitzaren aurrean. AIURRI

"Plaza-dantzak hartu du indarra"

MAITE SAGASETA URKI DANTZA TALDEA

Abiatzeaz da helduen plaza-dantza ikastaroa, Andoaingo Urki dantza taldearen eskutik. Euskal kulturgintzara gerturatzeko bidea da

Xabier Lasa ANDOAIN

Bi taldetan banatu duzue ikastaroa, datorren astean abiatuko dena.

Bai, mailakatuta. Ez da erraza zehaztea nor zer taldean aritza den egokiena, baina esango genuke sekula egin ez dutenak lehenbizikoan bilduko direla, eta aritutakoak bestean. Normalki, interesa duten batzuk ez dute jakiten non kokatu, eta halakoe-tan proposatzen diet etortzeko eta probatzeko, non dauden eroso-oen ikus dezaten. Jakinda, gainera, aldatzeko aukera dagoela.

Zer dantza mota irakatsiko dituzu?

Arin-arina eta fandangoa, eta plaza-dantzak deitzen direnak (baltsak, kontrapasak, boleroak, mazurkak, eskotixak...). Horietako batzuk, binaka dantzatzeko direnak, euskal dantzatzat daukagu, nahiz eta jatorriz ez izan euskaldunak; jendearentzat gogokoak dira, eta integratuta daude plaza-dantzatan. Egun, erromeriaren kontzeptu tradizionala alboratuta dagoela esan daiteke. Plaza-dantzak hartu du indarra.

Aipatutako dantza horiek jorratzeko asmoa eduki arren, ikastaroan irekita gaude parte-hartzaileek proposamenak egin ditzaten. Esate baterako, aurreko ikasturte batean, San Juan gauan suaren inguruan ikastaroko taldeak dantza egitea proposatu zuen, eta hartarako prestatu egin ginen.

Zein da irakasle baten funtzioa: dantzak erakustea, askatzen laguntzea...

Donostiako Aiko dantza eskolan parte hartzen dut, eta han gida-

ri diren Patxi Labordak eta Sabina Bikondok erabiltzen duten printzipioa dut gogoko. Aditza ematen dutenez, euren helburua ez da dantzak irakastea, datzan irakastea baizik.

Gauza kuriosoa gertatzen da, dantzekin eta kulturarekin edo artearekin zerikusia duten jarduerekin. Jendeak halako batean kirola egitea erabakitzen du, esate baterako korrika egitea, eta normalizat jotzen dugu hori; ez dugu kontuan hartzen azkar ala motel dabilen; egiten du, eta kitto. Dantzan, marrazketan eta beste hainbat kultur diziplinan, aitzitik beti trebatuen erreferentziak hartzen ditugu aintzat, eta geure buruari mugak jartzen hasten gara. Dantzen kasuan, maiz, dantza bikain egiten duten dantzarien ispiluan jartzen gara. Ez dugu behar bezala bereizten oholza batean gainean dantza talde zaildu batek egin dezaketen dantza koreografiatua batetik, eta bestetik, plazan, dantza zaleok egin dezakegun festa giro parte-hartzaile baten testuinguruan. **Lotsa nagusitzen dela plazara ateratzeko orduan, alegia.**

Horixe da kontua. Zenbaitek zera pentsatzen dute beren artean, dantza talde antolatua baten emanaldia ikusi orduko: "Ni ez naiz horien parera iristen ezta hurrik eman ere, eta lotsa ematen dit plazara ateratzea". Dantza gustura asko egingo lukete, baina konplexua sartzen zaie, eta atzera egiten dute. Gauzak horrela, plaza-dantzen irakasle baten helburua zera behar du izan: jendea ikastarora hurbiltzeko gonbidatu, eta lagundu lotsak uxatzen eta dantza eginez gozamen sentitzen. Denok ez dauzkagu dohainak gauza guztiak perfektu egiteko, baina horrek gutxienez behar luke izan. Garrantzitsuena da bada-kigula gorputza mugitzen, eta badakigula gozamen sentitzen musikaren erritmora dantzatzu.

Oraindik orain euskal dantzen inguruan Tolosan egindako jardunaldi batzuetan, eztabaida eragin zuen gai horrek. Galdera zera zen, ea publiko orokorrari irekita dauden eta herri partaidetza sustatu nahi duten festetan dantzari edo dantza talde trebatuek parte hartu beharko luketen ala ez. Alegia, ea beren parte hartzeak publiko orokor hori uxatzen duen ala ez. Aldeko eta kontrako argudioak eragiten dituen eztabaida, inondik inora.

Izena emateko epea zabalik

Helduen plaza-dantza ikastaroa, Urki taldearen eskutik. Bi talde, hasiberrientzat eta arituentzat. Astelehenetan, azaroaren 8tik apirilaren 11ra. Azaroaren 4a azken eguna izena emateko. Prezioa: 100€. Telefonoa: 629 375 147.

Urte mordo daramazu ikastaroak eskaintzen. Andoainen ba al dago plaza-dantzarako tradizioa?

Beti eduki izan dut gogoa aztertzeke Andoaingo historian ospatu izan diren jai eta erromeriak, eta horietan zenbat herri-tarrek eta zein modutan parte izan duten. Baina baietz iruditzen zait, beti plazaratu izan dela zaletasuna. Ikusi besterik ez dago zenbat eta zenbat gazte igaro den Urki taldetik urtetan, edo zenbatek egin izan duten ikastaroren bat. Dantzaldiren bat antolatzen denean ere, Gozategirekin edo antzeko taldeekin, jendea dantza egitera animatzen da. Nolanahi ere, egia ere bada lotsa uxatzen ikasi beharko genukeela.

Ikastaroaren atarian, sumatzen al duzu ikastarorako gogorik?

Pandemia dela eta, esango nuke sekula baino premia handiagoa dagoela kalera irteteko, elkarrekin egoteko, sozializatzeko, gorputza mugitzeko... Joan den igandean bertan, Andoaingo buruhandi eta konpartsen kalejirak argi asko bistaratu zigun premia hori. Ikusgarria izan zen zenbateko jendetza bildu zen kaleetan eta Goikoplazako ekitaldian! Gipuzkoako herri askotako jendea etorri zen, eta denok, haurrek bezainbat helduek, gozatu ederra hartu genuen.

Ikastaroan izena eman ez eman zalantzatan dagoen hori, nola animatuko zenuke?

Proba dezala! Ez dadila etxean geratu lotsagatik edo "ez dut sekula egin" pentsamendu horrek baldintzatuta. Bizitzan makina bat gauza aurreneko aldiz probatzera animatzen bagara, dantzarekin zergatik ez egin berdin? Lagun-giro bikaina topatuko du ikastaroan, eta ziur ez dela damutuko hartutako erabakiagatik.



Gau Beltza ospatu zuten Urnietan, ekitalditxo eta kalejira eginez. ALMUSALAS

Euskal kutsuko festa Urnietan

Euskal Herrian zabaltzen ari den Gau Beltza Urnietara ekarri zuen Magale-Salestar ikastetxeak, baita urriaren 31ko arratsalde-iluntzea girotu ere. Irudi ikusgarria eskaintzen zuten parean zituzten herrikideei begira. Argazki gehiago Aiurri.eus gunean ikusgai



Elizaren arkupea ikusgarri zegoen, urriaren 31n. ALMUSALAS



- **Ehunka lagun jokoan, denboraldi berrian.**
- **Adi "Aiurri" taldeari! Astero sari gozoa Arrutiren eskutik.**





Barcelona CF taldearekin, Kataluniako selekzioarekin eta Espainiako selekzioarekin ari da Pau Aira. AIURRI

Pau Aira, Andoainekin lotura duen jokalaria

ERRUGBIA Keinu dendako Roger Airaren semea Katalunian bizi da. Marc anaia eta bera herriari oso lotuta daude. Iaz, esaterako, Santa Krutz jaien harira bidali zuten animozko bideoak arrakasta handia izan baitzuen. Pau errugbian ibilbide ikusgarria osatzen ari da

Mikel Arberas ANDOAIN

Maila gorenera iritsi da Aira eta etorkizun oparoa du aurretik. Espainiako eta Kataluniako selekzioekin aritzeaz gain, Bartzelona taldeko jokalaria da. Gainera, 20 urte azpiko Europako txapelketan podiuma eskuratu du unibertsitatea sartzeko. Askok lortu ez dutena oso gazte lortu du kataluniarrak. **Maila oso altura iritsi zara errugbi munduan. Bartzelona taldearekin eta selekzioekin jokatzera iritsi zara...**

Esan daiteke errugbian maila gorenera iritsi naizela; Espainiako selekzioarekin 15 Abso-lutuan parte hartzea soilik falta zait. Esan beharra dago, selekzioarekin 7 'sevens' modalitatean jokatzeko dudala. Ligari dagokionez, lehen mailan jokatzeko Bartzelonako taldearekin. Hori gutxi balitz, Espainiako 20 urtez

azpiko selekzioarekin jokatu dut, 15eko modalitatean.

Oso gaztea izanik, horren maila altura iristeko, gogor entrenatu behar izan duzu, ezta?

Egia esan, oso gogor entrenatu dut. Jarraitasun handiz lan egin dut eta, seguruenik, hori da helburua lortzeko gako nagusia; noski, entrenamendu guztietara joatea, ez huts egitea eta norbanakoaren lanketa ezinbestekoa da. Buruan duzun helburua lortzeko, exijentzia nahitaezkoa da, bai besteek jartzen dizutena, baita zeurea.

Zein aurreikuspen duzu denboraldi berriari begira?

Egia esan behar badizut, nahastuta nago. Ez dakit zer jazoko den eta nolakoa izango den. Izan ere, Espainiako selekzioa nire klubarekin tartekatuta behar dut. Beraz, zaila da zehaztea. Denboraldiak aurrera egin ahala,

modu batera edo bestera antolatuko naiz, baina, oraingoz, Keniako txapelketan eta ondorengo partidetan jarriko dut gogo. Keniatik itzulita, selekzio absolutuarekin jokatu dut eta, geroago, 20 urte azpiko selekzioarekin Coimbrara joango naiz Europako txapelketa jokatzera. **Helbururik ba al duzu etorkizunari begira?**

Nahiago diot datorren urteari begiratu. Ez naiz oso luzera pentsatzen duen horietakoa. Egunerokotasunari begiratzen diot, eta helburua 20 urte azpiko lehiaketan Europako txapelkun bilakatu edo lehen hiruren artean geratzeko izango litzateke; horrela, eliteko jokalaria bilakatuko nintzateke, eta unibertsitatean sartzeko oso baliagarria litzaidake. Nire helburua unibertsitatean sartu, INEF ikasi eta errugbian aritzea da.



SD EUSKALDUNA

Hasiera ikusgarria

EUSKALDUNA Infantil mailako ligaxkan hiru jardunaldi igaro dira eta hiruretan garaile atera da Andoaingo taldea. Gauzak horrela, sailkapenaren gaikaldean daude. Asteburu honetan atsedendaldia izango dute. Azaroaren 13ko asteburua iristeko gogoz izango dira jokalaria guztiak. Zorionak!



URNIETA

Garaipena Ostadarren zelaian

FUTBOLA Jubenil mailako Urnieta A taldeak garaipena eskuratu zuen Lasarte-Orian (2-4), eta datorren asteburuan Amara Berriren zelaian jokatu dute. Urnieta B eta Euskalduna taldeek euren partida galdu zuten, emaitza berarekin (2-3).

Lagunarteko giroan

FUTBOLA Zumea plazan topatu genituen, derbia hasi aurretik, Diego Barrasa athleticzalea eta Iñaki Mitxelena errealezalea. Biak oso ezagunak Andoainen. Mitxelena, Anoetarako busa hartu aurretik, Barrasarekin elkartu genuen argazkia ateratzeko. Futbola bizitzeko modu asko daude, baina bi andoaindarrek adiskidetasun handiz bizi zuten derbia.



AIURRI



Aitzol Zuriarrain andoaindarra. AIURRI

"Aurre-denboraldiari ekin diogu"

AITZOL ZURIARRAIN ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

TXIRRINDULARITZA Denboraldi berria abiatu dute eta Zuriarrain Andoaingo eskolako entrenatzaileetako bat da. Hogeita hamar txirrindularirekin hasi dute denboraldia

Mikel Arberas ANDOAIN

Urteak daramatza Andoaingo gazteei txirrindularitza lezioak ematen. Bi urte bereziren ostean, normaltasunez lehiatu eta entrenatu ahal izango dute **Urriaren 28an hasi zineten entrenamenduekin...**

Txirrindulari eskolan bi atal nagusi ditugu: batetik, benjaminak, alebinek eta infantilek Arrate frontoiaren azpian eta kiroldegian entrenatzen dute; bestetik, kadeteek eta jubenilek, Allurralden egiten dituzte entrenamenduak, atletismoko pistaren inguruan. Aurrendenboraldiari ekin diogula esango genuke.

Noiz irtengo zarete errepidera?

Denboraldia bi zatitan banatzen dugu. Batetik, txapelketa hasi bitarteko etapa izango genuke. Neguko lana edo aurrendenboraldia deitzen diogu; aste horietan fisikoa eta bizikletaz kanpoko lanketa egiten dugu. Urte berriarekin batera txirrinduaren gainean entrenatzen hasten gara.

Benjaminetatik infantiletara txirrindularitzako teknikak lantzen ditugu, batik bat. Eguraldi kaskarrarekin eta eguna luzatu bitartean frontoian entrenatzen dute. Martxoaldean errepidera irteten gara. Zaharragoekin, berriz, neguan aurrendenboraldia lantzen dugu, gimnasioan, batez ere, eta astebukaeretan mendi irteerak bizikleta saioekin tartekatzen ditugu, urtea amaitu arte. Urte berriarekin batera, bizikleta gainean soilik ibiltzen gara.

Noiz hasten da denboraldia?

Jada ziklokroseko denboraldia- rekin hasi dira gazte batzuk eta otsailera arte luza daiteke. Errepideko txirrindularitza denboraldia martxoko lehen egunetan

"ALEBINETATIK HASI ETA JUBENIL MAILARAINO TALDE POLITA OSATU DUGU"

hasten da, gutxi gora behera; mailaren arabera, denboraldia gehiago edo gutxiago luzatzen da.

Txirrindulari askok eman al dute izena eskolan?

Taldea handituko zaigula dirudi. Memento, alebinetan 11 neska-mutil ditugu, infantiletan 3 mutil, kadeteetan 10 neska-mutil eta jubeniletan 6 neska-mutil. Beraz, talde polita osatu dugu, oraingoz. Hala ere, denboraldia hasten dugunean ikusiko dugu ea gazte gehiagok emango duten izena.

Txirrindularitzarekiko zaletasuna handitu dela dirudi, agian, pandemiak bultzatuta?

Hala dirudi. Txirrindularitza probatu ohi dutenak gustora

"ARLO FISIKOAREKIN HASI GARA, ETA 2022KO HASIERAN BIZIKLETARI HELDUKO DIOGU"

Izena emateko epea zabalik

Andoaingo eskola aurreko astean hasi zen prestaketa saioekin. Ostegunero elkartuko dira 19:00etatik 20:00etara. Interesa duenak hauexek harremanetarako bideak:

- info@andoaingo.eus.
- 688 607 024.

ibiltzen direnez, jarraipena ematen diote. Askatasuna ematen dizu eta, are gehiago, pandemia garaian. Kirolari askoren askatasun tresna izan da bizikleta. Egia da ere, askok errepideari beldurra diotela, sarritan, albistegietan ikusten diren ezbeharrak medio. Istripuak jazotzen dira, bai, baina urte askoz bizikleta gainean ibili garenok ez dugu horrenbesteko arriskua ikusten.

Txirrindularitza eskolan ziklokrosa ere lantzen duzue?

Taldean, batez ere, errepideko txirrindularitza lantzen dugu, baina ziklokrosa praktikatzeko ateak irekita edukitzen ditugu. Hala ere, nabarmendu behar dut, oro har ez ditugula ziklokros entrenamenduak egiten. Horrez gain, federazioaren laguntzarekin pista modalitatean ere aritzen gara.

Txirrindularitzan hasi nahi duenak izena eman al dezake oraindik?

Jakina. Orain aurrendenboraldi-ko entrenamenduekin hasiko gara. Hasieran aipatu bezala, fisikoa landuko dugu, gehienbat. Ondoren, 2022a hastearekin batera bizikletan ibiltzeari ekingo diogu.

Lidergotzan daude Leizaran taldeko senior mailako neskak

ESKUBALOIA Lehen lau jardunaldiak igarota, Leizaran lehen postuan dago eta Urnieta laugarren

Erredakzioa ANDOAIN

Bigarren jardunaldiko partida jokatu gabe geratu zen, eta aurreko asteburuko atsedenaldia partida hori berreskuratzeko baliatu zuten Leizaran eta Legazpi taldeek. Andoaindarrek garaipen argia lortu zuten (34-19), eta lau garaipenekin eta zortzi punturekin sailkapenaren lehen postuan daude. Puntu berdinekin daude Elgoibar eta Tolosa. Laugarren postuan dago Urnieta, hiru garaipenekin eta sei punturekin. Asteburuan Leizaran taldeak Irungo Artaleku mitikoan jokatu du (igandea, 10:00), eta Urnieta Zumarragan (larunbata, 18:00).

Jubenil mailakoak

Aurreko asteburuan ligako sei- garren jardunaldia jokatu zuten. Leizaran taldeak garaipena eskuratu zuen Ormaiztegin (19-23), eta Urnieta aldiz Aialaren aurkako partida galdu zuen (28-20). Sailkapenean Urnieta laugarren dago, eta Leizaran bosgarren. Asteburu honetan andoaindarrek atseden izango dute eta urnieta-rrak Usurbilen aurka ariko dira (larunbata, 16:00). Jubenil mailako mutilak ere ondo ari dira. Urnieta lehen postuan dago, eta Leizaran hirugarren.



Urnieta
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Ikastaroa

Helduen plaza-dantza ikastaroa.
Izena emateko azken eguna.

OSTIRALA 5

ANDOAIN Erakusketa

Martin Ugaldere mendeurrena.
Azaroak 5-abenduak 4, Bastero.

URNIETA Irakurtaldia

4 urtetik gorako haurrentzat,
"Liburutegiko xaguak" saioa.
17:00, Lekaio.

ANDOAIN Tailerra

Giltzatak tailerra.
17:30, Gazte Lokala.

URNIETA Argazki-lehiaketa

2022ko egutegia osatzeko argazki-
lehiaketa. Oinarriak: Urnieta.eus.
Azken eguna: Azaroak 5.

URNIETA Musika tailerra

DBHko ikasleentzat rap tailerra eta
hitzaldia, La Basuren eskutik.
19:00, Gaztelekua.

LARUNBATA 6

ANDOAIN Batzar irekia

Kontseilu sozialista.
12:00, Urigain.

IGANDEA 7

ANDOAIN Magia saioa

"Houdini, la magia de la TV".
12:00, Bastero. Sarreak: Kutxabank.

ASTELEHENA 8

ANDOAIN Irakurtaldia

4 urtetik gorako haurrentzat, heldu
baten laguntzarekin.
17:30, Udal Liburutegia.

ASTEARTEA 9

ANDOAIN Film emanaldia

"Bombshell", MeToo fenomenoari
buruzkoa.
18:30, Bastero.



Magia saioa, igande honetan Bastero Kulturgunean. HOUDINI

ANDOAIN Magia saioa

Disney Channel TV kateko 'Club Houdini' saio ezaguneko magoa 'Houdini,
telebistaren magia' ikuskizunarekin dator Andoainera. Ez dira faltako
igarkizunak, agerpenak, desagertzeak eta ur ontzi handi batetik lortuko duen
ihesaldiaren ikuskizun harrigarria..
Azaroak 7, igandea. 12:00, Bastero Kulturgunea. Sarreak: Kutxabank.

URNIETA Erakusketa

"Zomorroaren kronika bat", Beñat
Lizaso urnietarraren argazki-
erakusketa. Bisitaldi gidatuak
azaroaren 9an, 11n eta 16an.
18:00; 19:00, Bisitaldi gidatuak.
Lekaio.

OSTEGUNA 11

ANDOAIN Irakurketa publikoa

Martin Ugaldere liburua irakurriko
dute hainbat ordezkari, eta
zuzenean ikusteko aukera izango da
Goikoplazan eta Bastero plazan
11:00, Martin Ugalde Kultur Parkea.

ANDOAIN Sari banaketa

Martin Ugalde ipuin lehiaketaren
XXV. edizioa.
19:00, Bastero.

URNIETA Erakusketa

"Zomorroaren kronika bat", Beñat
Lizasoren argazki-erakusketa.
18:00; 19:00, Bisitaldi gidatuak.
Lekaio.

ESKUALDEA Euskara

Errigora.eus webgunearen bitartez
Nafarroako produktuak erosiz gero,
hango euskarari bultzada emango
zaio.
Saskia erosteko azken eguna.

OSTIRALA 12

ANDOAIN Hitzaldia

"Banantze prozesuetan ematen
diren indarkeriak, emakumeen
bizipenetatik abiatutako
hausnarketa". Hizlari ariko dira
Solagaistua eta Bojo adituak. Bideo
emankizuna eta hitzaldia.
18:30, Bastero.

URNIETA Ipuin kontaketa saioa

Izaskun Mujikaren eskutik, 4 urtetik
gorako haurrentzat.
17:00, Lekaio.

URNIETA Kontzertua

La Basu rap kantariaren zuzeneko
emanaldia.
19:00, Sarobe.

ANDOAIN Antzezlan


"De Gernika a New York pasando
por Berlin", Tentazioa eta
Baleukoren eskutik.
20:30, Bastero.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Kontzertua

Edu, Crutzero, DJ Ander, Miren eta
Delaossa hip hop eta rap kantarien
emanaldia.
18:00, Bastero.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

La familia Addams
2, la gran escapada
Larunbata, 6. 17:00.
Igandea, 7. 17:00.
El finak
Larunbata, 6. 12:00.

Erase una vez en Euskadi

Lar. 6. 19:30, 22:00.
Igandea, 7. 19:30.
Astl. 8. 19:30, 22:00.
El buen patrón
Igandea, 14. 19:30.
Astl. 15. 19:30, 22:00.



SINOPSIS



Erase una vez en Euskadi

Zuzendaria, gidoia: Manu Gomez. Aktoreak: Asier Flores, Aitor
Calderon, Miguel Rivera, Hugo García, Marian Alvarez, Luis Callejo,
Aron Piper, Ruth Díaz. Herrialdea: Espainia (2021). Generoa:
Drama. Iraupena: 100 minutu.

1985eko uda Euskadin

Eskola amaitu da, eta,
azkenean, iritsi dira opor-
egunak. Marcosek eta bere hiru
lagunek, Jose Antoniok,

Paquitok eta Tonik udaren
etorrera jaso dute. Bizitzak
eman dien lekuan, gatazkak
tarte handia duen herrialdean.

SINOPSIS

La familia Addams 2, la gran escapada

Zuzendaria: Tom McGrath. Herrialdea: AEB (2021). Generoa:
Marrazki bizidunak. Ekoizlea: DreamWorks. Iraupena: 97 minutu.

Addams familiaren abentura berriak

Morticia eta Gomez larrituta
daude seme-alabak hazten ari
direlako. Denen arteko lotura
berreskuratzeko, Miercoles,
Pugsley, osaba Fester eta

gainerako taldekideak
sorgindutako karabanan sartzea
erabaki eta errepidera atera
dira. Familiako azken oporraldia
izango den asmoarekin.



Zinema euskaraz

200 urte baino gehiago
daramatzate elfkinen
lurrazaleko mundutik
ezkutututa, eta gizakiekin
inolako harremanik izan gabe.
Elfie-k, Kipp-ek eta Buck-ek
lurrazalera igotzea erabaki dute.



ONDARRETA

Hezkuntza publikoaren aldeko bilkura Bastero plazan

"Ondarreta ikastetxea eta Leizaran institutua hezkuntza publikoaren alde. Pribatizaziorik ez!" lelopean, astearte arratsaldean ikastetxeko hainbat ordezkari eta familia Bastero plazan elkartu ziren. Taldeko argazkia atera zuten, hezkuntza publikoaren aldeko mezua gizarteratzeko. "Euskal eskola publikoaz harro!" izeneko manifestuan eskola publikoaren defentsa sutua egiten dute: "Hezkuntzan dugun zerbitzu publikoa, doakoa eta unibertsala,

denona eta denontzat, jatorrizko ezberdintasunak berdintzen dituen, inklusiboa den bakarra, euskal gizartearen kohesioari ekarpen handiena egiten diona eta baldintzarik zailenetan ere ikasle gehien euskaldundu duen eta gaur egun euskalduntzen dituen sarea. Hezkuntzak ezin du merkatuaren menpe egon, hezkuntzarako eskubidea ezin da egon familien ahalmen ekonomikoaren baitan".

Euskalduna Mendigoizale Taldearen Mendizale Astea

Aurtengoa 56. ediziora iritsi da. Ekitaldi gehienak taldeak Kale Nagusian duen egoitzan burutuko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Datorren astean Andoain.

Azaroak 9, astearte:

Iosu Iztueta eta Iker Iriarte: "Arrastroan" ikus-entzunezkoa. 19:00etan.

Azaroak 10, asteazkena:

"2004 urteko goizekoak" ikus-entzunezkoa. 19:00etan.

Azaroak 11, osteguna:

"Iker Karrera. Bidea ipar" liburuaren aurkezpena. Iker Karre-

ra korrikalariaren eta Unai Ugartemendia kazetariaren eskutik. 19:00etan.

Azaroak 13, larunbata:

Bazkideen ezohiko batzarra, elkartaren egoitzan. 17:00etan.

Azaroak 14, igandea:

Babarrun jatea Berastegin. Autobusa abiatzeko irteera ordua: 07:45ean Donostiatik (Astoriatik). 08:00etan Andoaindik (Makaldegitik).

Parte-hartze prozesuaren hirugarren faseko emaitzak

Udalak 2022ko partidaren aintzat hartuko dituzten proposamenak jakinaraziko ditu laster

Erredakzioa ANDOAIN

Herritarren parte-hartzearen hirugarren txandaren ondoren bozketa egin eta gero esleipen-faseari ekingo dio Andoaingo Udalak. Hala, Udalaren Jarraipen Batzordea bildu ondoren, 2022 partidaren sartuko diren proposamenak jakinaraziko ditu. Baikor erantzun du Maider Lainez Andoaingo alkateak, izan ere, bere ustean andoaindarren

inplikazioak agerian utzi du garrantzitsua dela parte-hartze bideak areagotzea, herritarrek udalgintzan erabakimena izan dezaten. Azken bozketa deialdian 836 boto jaso dira, horietatik 485 internet bidez eta 351 udalguneetan. Azken horietatik Kiroldedian (111), Udaletxean (78) eta Anbrosia Olabide (58) eraikinean jaso dira proposamen gehienak.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza **edo mintza-lagun** bila dabil: Gaztelan eta ingelesez

/ danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexologist45@yahoo.co.uk**

PARTE HARTZEKO

Email: **diseinua@aiurri.eus**
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN**

TELEFONO-ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik!

- **www.aiurri.eus** Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- **diseinua@aiurri.eus**
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

Egunean Behin lehiaketa

"Oterber" erabiltzailea izan da azken asteko zozketan irabazlea. "Aiurri" taldean aritu diren artean zozketa egin eta gero, irabazlea Ainhoa Otermin izan da. Aste honetako lehiaketa martxan dago, seigarren aukera ehunka jokalarientzat. Aurreko asteko irabazleak "Ezkide", "Aimar", "Haizea" eta "Jon Ander" izan ziren. Denek ere Arruti gozotegiko saria eskuratu dute.



AIURRI





Aita Larramendi ikastolako ikasleek bertso bidez agurtu zuten Asier. CARRERE

Azken agur hunkigarria Asier Arabaolaza Usarralde gazteari

Bapateko heriotza izan zuen Bordako gazteak, 18 urte besterik ez zituenean. Larunbat arratsaldetik hona haren heriotzak eragin handia izan du Andoainen. Azken agurra eskaini zioten asteartean, bertan izan zirenentzat oso hunkigarria

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo gaztearen lagunek eta ikasleek hitza hartu zuten, antolaketa bikaineko ekitaldian. Sorabilla aldeko baserri eta etxeetara joateko bideak estuak dira. Bordara iristeko bolondresen laguntza ezinbestekoa izan zen jendetza hori guztia omenaldi ekitaldira iristarazteko. Gaztearen senideek kotxez hurbiltzeko aukera izan zuten, eta gainerakoei Bordaberrietik abiatzen zen bus zerbitzua eskaini zieten. Goian-behean, trafikoa bideratzeko bolondresen lan aparta egin zuten.

Bertan izandakoen ahotan, oso ondo antolatutako omenaldi ekitaldia izan zen. Protagonismo berezia hartu zuten Asier Arabaolaza Usarralde gaztearen

lagunek eta ikasleek. Iruñean erresidentzian harekin bizi ziren ikasleek hitz ederrak eskaini zizkioten, eta ikastolako ikasleek bertso bidez gogoan hartu zuten. Emanaldiaren azken parte hartzea Andoaingo lagun taldearena izan zen. Denen artean omenaldi ekitaldi oso hunkigarria osatzea lortu zuten.

Musika eta dantza ez ziren falta izan. Bakartxo Arabaolazak, ekitaldiko parte hartzailearen bat nabarmentzearen, dantza ederra eskaini zion. Asier Aita Larramendi ikastolako ikaslea izan zen, eta haren irakasleek ere omenaldian parte hartu nahi izan zuten.

Ezusteko galanta izan zen asteburuan, Asier gaztearen heriotza luzaro gogoratuko baita.

Gaztea izanik, gogorra baita gertaera horri aurre egitea. Astearteko ekitaldian maitasun handia ziotela argi erakutsi zuten ehunka lagunek.

Oso familia ezagunekoa zen Asier gaztea, Bordako Andoni Arabaolaza sukaldariaren semea baitzen. Beste zaletasunen artean, bazuen idazteko trebezia eta Leizaran eskubalo taldean garatu zuen kirolarekiko zaletasuna. Heriotza eta gero, etxeok lagunak eta senideak gonbidatu zituzten Bordan antolatu zuten hileta-zibilera.

Komunitatean berehalako eragina izan zuen heriotzaren albisteak. Eta taldean, lagunartean, agur ederra bezain hunkigarria eskaini zioten andoaindar gazteari.

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Herriak egiten du herria

urriak 23 - azaroak 11



errigora.eus

Saskien baliorearen %25 Nafarroa
hegoalde eta erdialdeko
euskalgintzara bideratuko da

